

edertasuna be baillatzen dabe, lanabesak eurak be ondo apainduak eginda, ori 200.000n urtean Edertasunerako lenengo simetria bifazak edo aurpegibiko lanakesak dira eta simetriak nai dauana edertasuna da.

EDERTASUNA UNE BATEN ALA MAILLAKA LORTUA?

Atxelense'koen bifazak 1,50 milloi urte daukez, Altamira'ko margazkiak 14.000 urte baiño ez. Urte asko dago or bitartean edertasuna lortzen joateko, maillaka.

Lenengo agertzen dan apaingarria kapar edo ostra bat da. Egiña da ala bertan berez fosil biurtua?

Neandertalak azurretan be egiten ebezan apainketak eta markak, zuloak, geometri-lanak (350.000 urte!) eta homo erectus'en lana. Zarrak dira, giza-lana dauke ez berezkoa, ez dira zeozertarako egiñak, edertasun billa doa or gizakia, batez be jeometriagaz edo simetriagaz.

Olako lanak asko ugaritu ziran goi arri-zar aroan: Lanabesak, irarketak, irudi egiñak...

Aurrerapen aundia, zaldi baten irudia be agertzen da! Esan lei Altamira'rako bidean gagozela. Zelako ugaritasuna or! Asi Rusia'n eta cromagnon'era arte.

Zergaitik eta zertarako margozten eben Altamira'ko gizakiak? Artea? Erlijiñoa? Majia? Baiña geuk be geuren buruari itaundu geinkio: Zergaitik eroten doguz apaingarriak saman edo eskutorrean? Bardin! Nozkoak diran? 28.000 urtetik 10.000 urtera bitartekoak eta leizetan dagozan lez, Würm aldikoak.

Neandertalak gutarikoen trebebideak artu ebezan: Lanabesak, sinboloak, edertia, baiña gutarikoen antzera egin ete ebezan ala eurak aurreratu ete ziran? Gauza biak batera?

Edertiaren sorrera eta izkuntzarena batera datoz. Aurrean dagon zeozer adierazteko era bi dagoz. Gauza orren irudia egin-margazkia (jeroglifiko idazkeraren antza), edo berbeagaz adierazo (ideolojiko idazkera). Bisonte bat margotu edo "bisonte" berbea esan. Biak dagoz gauzearen orde.

Iru gauza dagoz argi: 1) "Homo sapiens'ek" gaurkoai emon dautse bidea gizarterako eta trebetasunerako, bizilekua apaintzera, ekonomia eta sinboloak erabiltera. 2) Jakintza maillaka korapillatzen doa. 3) Afrika'koa alde batera itzita baiño ezin geintekoz arritu agertzen diran edertasunakaz eta gure ezagupideak eroan gaitue luzaroan Altamira'ra: 200.000 urtean doa egiten aldakuntza ori, maillaka.

OLAZAR'tar Martin'ek

OTOIA

Lurtar gizonak gara
zeruetara adi
itxaropenetan,
egiz, gauza aundia
gora begiratzea
otoi ederretan.

Perutxo, zintzo zintzo,
eskermiñetan dabil
otoiaren bidez,
argia ta poza
asmatuten ebazan
erregu bitartez.

Itz santu bikain orrek
zer daukazu zuregan
Aitaren aurrean,
Aita egi-egitan,
gizonari laguntzen
zeru ederrean.

JESUS SALBATZAILLEA

Izen maitagarria,
zeru goi ederrek
sortu zan lurren,
zeregin aundiz dator
Ait onak bialduta
gozonen onean.

Gogorik onenagaz
esana egiteko
eldu zan lurrera,
aunditasun guztia
lurtar guztian alde
gogoz eskeintzera.

Bizia ederra zan
baiña ederragoa
esana eitea,
Kurutza gogorrean
gizonak kendu eutsen
beraren bizia.

PAULIN